

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## “Berdintasunean denok desberdin”, Gobernuak E28rako abiarazi duen kanpainaren lema

*Berdintasunaren balioa eta desberdintasunerako eskubidea dira foru exekutiboak LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Egunaren inguruan antolatu duen lehendabiziko kanpainaren ardatzak*

Ostirala, 2018.eko ekainak 22

Nafarroako Gobernuak gaur goizean aurkeztu du, ekainaren 28an ospatuko den LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Egunaren inguruan abiarazi duen kanpaina. “Berdintasunean, denok desberdin” delako lema hautatu da, foru exekutiboak egun hau ospatzeko gauzatu duen lehendabiziko sentsibilizazio-kanpaina honetarako, aniztasunerako eta desberdintasunerako



Ana Ollo, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria, eta Mertxe Leranoz, NABiko zuzendari-kudeatzailea, kanpainaren aurkezpenean.

eskubidetik berdintasunaren balioa aldarrikatzeko asmoz.

Kanpaina prentsaurrekoan aurkeztu dute Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok eta Nafarroako Bedintasunerako Institutuko zuzendari-kudeatzaile Mertxe Leranozek, eta kartel batek, iragarki batek eta gazteei zuzendutako pegatinek osatzen dute.

Kontseilariaren esanetan, kanpainaren mezu nagusiaren bidez, “berdintasuna aldarrikatu nahi da, desberdintasunerako nahiz aniztasunerako eskubidetik. LGTBI+ pertsonen eta gizarteko gainerako pertsonen aldeko eskubideen berdintasuna aldarrikatzen du”.

Adierazi duenez, mezua “ekainaren 28tik harantzago zabalduko da zenbait hilabetez, aniztasuna, desberdintasunaren balioa eta sexu eta genero aukera guztien ikusgaitasuna aldarrikatzeko eta gogoratzeko”.

### Kanpaina

Kanpaina euskarri fisiko eta digitalen bitartez zabalduko da. Kartela Lehen Mailako Arreta Zentroetara, Liburutegien Sarera, Nafarroako turismo bulegoetara, Udaletxeetara, Berdintasun Teknikarienera, Osasun Sexualeko Zentroetara eta LGTBI Zerbitzu Publikoetara bidaliko da, baita Nafarroako LGTBI Taldeetara ere.

Era berean, kartela prentsa idatzian argitaratuko da ekainaren 28an, eta aurreko astean, bannerren bitartez zabalduko da prentsa digitalean. Bideoa, aldiz, Nafarroako Gobernuaren sare sozialetan eta web euskarrietan izanen da ikusgai.

Azkenik, 3.000 pegatina banatuko dira ekintza koordinatzen lagundu duten Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren eta Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren bitartez, baita Kattalingune Zerbitzu Publikoaren bitartez ere, zeinek zerbitzua gazteen kolektiboari aurkezteko laguntza tresnatzat erabiliko baititu.

### **LGTBI politikak eta Kattalingune**

Nafarroako Bedintasunerako Institutuaren bitartez, Nafarroako Gobernuak LGTBI kolektiboari arreta emateko hainbat politika abiarazi ditu. NABIko zuzendari-kudeatzaile Mertxe Leranozek nabarmendu duenez, “ondoaz ondoko hirugarren urtez, Gobernuak hitzarmena sinatu du Kattalingorrirekin, kolektiboaren, senideen nahiz herritar guztien beharrei arreta emateko”.

2018rako 90.000 euroko aurrekontu-saila duen hitzarmenari esker, arretak eman ahal izan dira Nafarroa osoan zehar, zerbitzua landa-eremuetan aurkeztu eta prestakuntza-ekintzak eskaintzeaz gain. Urte hasieratik, zerbitzuak 306 arreta eman ditu, telefonoz, aurrez aurre edota email eta sare sozialen bitartez.

Kontseilariak exekutiboak azken aldi honetan landutako zenbait ekimen ere nabarmendu ditu; hala nola, NABIren barruan LGTBI politikak zeharka garatzeko berariazko atalaren sorrera, LGTBI Foru Lege berria garatzeko departamentu arteko Lan-Taldea, Nafarroako pertsona transexualei laguntza eta arreta emateko gidaren elaborazioa, edota Osasunbidean Transbide izeneko diziplina anitzeko unitate teknikoaren sorrera.

